

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 13035** 15/2013 Errege Lege Dekretua, abenduaren 13ko, «Administrador de Infraestructuras Ferroviarias» (ADIF) izeneko empresa-entitate publikoa berregituratzeari eta beste ekonomia-neurri premiazko batzuei buruzkoa.

I

Egungo egoera ekonomikoa dela eta, beharrezko da trenbide-sektorearen arrazionalizazioan urrats gehiago ematea, Estatuaren eskumeneko esparruan, zerbitzuen kudeaketa ahalik eta efizienteena izan dadin; horrela, aurrekontu-egonkortasunaren helburua beteko genuke, eta sektorearen jarduna hobetu egingo litzateke.

Horretarako, erakunde berri bat sortzea komeni da, Trenbide Azpiegituren Administratzailearen (ADIF) abiadura handiko azpiegiturak eraikitzen eta kudeatzeko jarduera-adarra bananduz; izan ere, aipatutako erakundeak egun administratzen dituen sareen artean desberdintasun nabarmenak antzematen dira ikuspuntu teknikotik zein ekonomiko-finantzariotik, eta, sare horiek modu independentean kudeatzea litzateke egokiena.

Horrenbestez, ADIFek aipatutako jarduera-adarra bereizteko prozesuari ekin beharko dio, eta berariaz sortutako enpresa-erakunde publiko berri batek hartuko du adar hori, ADIF-Alta Velocidad izendatuko denak. Hala, ADIFen egungo xedea aldatu egingo da: bere titulartasuneko gainerako trenbide-sarea kudeatzera eta bertan inbertsioak egitera mugatuko da.

Neurri horri esker, bi sareak espezializatu egingo dira (abiadura handikoa eta zabalera konbentzionalekoa), eta, ondorioz, optimizatu egingo da haien administrazioa. Horrela, era berean, hobera egingo dute haien mantentze-lanek eta ustiapenak, eta, bereziki, segurtasunaren kudeaketak.

Aipatutako banantze-prozesuan, ADIFeko eta sortuko den erakunde berriko langileen lan-baldintzak bermatuta geldituko dira.

Trenbide-sektorea liberalizatzeko prozesua bizkortzeko beharrak sortu du aipatutako neurria lehenbailehen hartzeko premia; albait lasterren zehaztu nahi da Estatuaren eskumeneko trenbide-azpiegituren kudeaketaz eta, hala badagokio, azpiegitura horien eraikuntzaz arduratuko diren administratzaileen egitura.

Errege lege-dekreto honek, halaber, ADIF-Alta Velocidad enpresa-erakunde publiko berriaren sorrerari estuki lotuta dauden hainbat alderdi arautzeko xedapenak jasotzen ditu, baita ADIFen eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen arteko harremanei buruzkoak ere. Erakunde berria sortu beharrak eta erakundea jardunean hasten denerako alderdi horiek guztiek araututa egoteko beharrak sortu dute halako premia. Hona hemen xedapen horietako batzuk:

Errege lege-dekreto honen 2. artikuluaren bidez, Estatuaren titulartasuneko sareko ondasun batzuk ADIF-Alta Velocidad erakundeari esleitzen zaizkio; ondasun horiek otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretua indarrean sartzean egokitu zitzaizkion ADIFI. Artikulu horrek berak ezarritakoaren arabera, ondasun horien titulartasuna ADIFI eta ADIF-Alta Velocidad erakundeari eskualdatzean, eskualdaketa horiek trenbide-azpiegituren administrazioari lotutako ondasunen doako transferentzia izango dira; transferentziok Kontularitzako Informazio Sistematik eta Sustapen Ministerioaren erregistroetatik ondorioztatuko balioan egin beharko dira.

Bestalde, 3. artikulan, ADIFek eta ADIF-Alta Velocidad erakundeak Iursailen inventarioa egin beharko dutela ezartzen da; artikulan bertan zehaztutako moduan egin beharko dute inventarioa.

Errege lege-dekreto honen lehenengo xedapen gehigarrian, ADIF-Alta Velocidad enpresa-erakunde publiko berriak finantza-jasangarritasunaren printzipioa betetzea

bermatzeko irizpideak eta prozedurak arautzen dira, Estatuko kontabilitateari buruzko araudian jasotako betekizunekin bat. Era berean, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoak jaulki ditzakeen obligazioak eta zorraren ordezko balore-tituluak uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean ezarritakoari lotuko zaizkio, jaulkipen horiek esklusiboki inbertitziale instituzionalei edo profesionalei zuzendutakoak eta atzerriko legeen arabera egindakoak izan ezean; azken kasu horretan, legedi horren mende egongo dira. Neurri horren bidez, aipatutako erakundeari finantzaketa baldintza egokietan lortzea ahalbidetu nahi zaio, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina aplikatzeak eragiten dituen administrazio-zamak murritzuta, baina aipatutako aginduan espresuki aurrekusitako kasuetan bakarrik.

Hirugarren xedapen gehigarrian, ADIF-Alta Velocidad erakundeari gaitasuna ematen zaio, Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen a) hizkiaren 40.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, interes orokorreko trenbide-sarearen energia elektrikoaren hornidura-zerbitzuaz arduratzeko, ADIFen titulartasuneko azpiegiturak barne. Horrenbestez, elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sarera sarbidea izateko kontratuak sinatu ahal izango ditu bere izenean, bai eta enpresa merkaturatzaileekin energia-kontratuak ere, interes orokorreko trenbide-sareko hornidura-puntu guztieta. Neurri horren bidez, energiaren erosketa zentralizatuaren abantailak aprobetxatu nahi dira.

Lehen xedapen iragankorren arabera, 2013ko abenduaren 31n, ADIF eta ADIF-Alta Velocidad dagokien segurtasun-baimenaren jabe direla joko da; hala ere, data horretatik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean, dagokien segurtasun-baimena eskatu beharko dute bi erakundeek. Bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten denez, ADIF-Alta Velocidad erakundeak ADIFen sarearen gaineko Adierazpenea aplikatuko du berea onartu bitarte; bestalde, erakunde berriak administratu beharreko trenbide-sareari dagokionez, trenbide-enpresek eta gainerako hautagaietako zerbitzu-ordutegi horretarako erreserbatuta daukaten gaitasuna erabili ahal izango dute.

Azken xedapenetako bigarrenaren bidez, aldatu egiten dira trenbide-azpiegituren administratzialearen kontratatzeko Araubide Juridikoa ezartzen duen Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 20. eta 22. artikuluak, Estatuaren eskumeneko trenbide-azpiegituren administratziale aniztasuna ahalbidetzeko; hala, ADIF-Alta Velocidad erakunde berriak esleitu zaizkion trenbide-azpiegituren administrazioari dagozkion eginkizunak bere gain hartu ahal izango ditu, eta haren kontratacio-araubidearen arauketa argitu egingo da. Gainera, kontratacio-araubide horretan, eguneratu egingo dira Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen testu bateginari eta abenduaren 30eko 48/1998 Legean uraren, energiaren, garraioaren eta telekomunikazioen kontratacio-procedurei egindako aipamenak; izan ere, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bateginak eta uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen kontratacio-proceduren urriaren 30eko 31/2007 Legeak hartu dute haien lekuak.

Aldaketa premiaz egin beharra dago Trenbide Sektorearen Legea ADIF-Alta Velocidad erakundearen sorrerak eragindako egoera berrira egokitzea komeni delako, eta enpresa publiko berri hori jarduten hasten denerako kontratacio-araubide berriak indarrean egon beharko lukeelako. Era berean, araubaide hori bera ADIFen aplikatzen zaiola bermatu nahi da, interes orokorreko trenbide-sareko trenbide-azpiegituren administrazioa bere gain hartzen duten bi erakundeetako tratamendu bera ematearren.

Azken xedapenetako laugarrena betez, ADIFen eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen ustiapeneko eta kapitaleko 2014rako aurrekontuak onartzenten dira, bai eta ekitaldi horretarako ADIF-Alta Velocidad erakundearen sorpetze-muga ere.

Neurri hori premiaz hartu behar da, aipatutako erakundeak finantzaketa-merkatuetara jo ahal izan dezan, egun dituen finantzaketa-beharrei erantzuteko; hain zuzen ere, aipatutako merkatuen egoera abantailatsua aprobetxatu nahi da, koiunturala izan daitekeelako eta bertan tentsioak sor litezkeelako.

II

Gainera, aldaketa bat egiten zaio Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeari, Espainiako araudia Kontseiluaren 2009ko irailaren 14ko 2009/119/EE Zuzentaraura egokitzeko; zuzentara horrek petrolio gordinaren edo petrolio-produktuen gutxieneko erreserba-maila batzuk edukitzera behartzen ditu estatu kideak. Zuzentara horretan, Europar Batasuneko petrolio-hornidurak segurtasun-maila handian izango direla bermatzeko esparru erkidea ezartzen da.

Espanian, araututa daude jada larrialdiko erreserben helburuak zein eratara bete behar diren, hala nola zeintzuk diren hornidura-etenari edo petrolio gordinaren edo petrolio-produktuen horniduraz gabetzeari aurre egiteko mekanismoak; hain zuen ere, bi arau hauetan: Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean, eta gutxieneko segurtasun-izakinak edukitzeko beharra, gas naturalaren hornidura dibertsifikatzea eta Petrolio Produktuen Erreserba Estrategiko Korporazioa arautzen dituen uztailaren 23ko 1716/2004 Errege Dekretuan. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea, gutxieneko segurtasun-izakinen eta 2009/119/EE Zuzentaraua zehaztutako larrialdietarako erreserben arteko baliokidetasuna ezartzeko.

Lehenik eta behin, hornidura segurtatzeko arrazoia direla medio, larrialdietarako erreserba-maila jakin bat edukitzeko betebeharra ezartzen da; maila hori honako bi kopuru hauen arteko handiena izan beharko da: eguneko barne-kontsumoaren 61 egun, edo batez besteko eguneko importazio garbien 90 egun.

Halaber, beharrezkoa da Petrolio Produktuen Erreserba Estrategiko Korporazioaren (CORES) eginkizunak zehaztea, Espainiako Erresumak izendatutako Biltzaritzate Erakunde Zentrala baita, eta erreserbak identifikatzeko, egiazatzeko, kontabilizatzeko eta kontrolatzeko prozedurak zein lotutako subjektuen eta erakunde eskudunaren arteko komunikazio-prozedurak 2009/119/EE Zuzentarauan ezarritako prozeduretarra egokitzea.

Era berean, gutxieneko segurtasun-izakinei eusteko betebeharra duten subjektuek bete beharreko baldintzak eta epeak gehitzen dira, eta, horrez gain, Petrolio Produktuen Erreserba Estrategiko Korporazioaren egitekoak zehazten dira, haren jarduera Zuzentaraua biltegiratze-erakunde zentralei buruz aipatutako eskakizunetara doitzeko.

Gainera, Zuzentaraua Espainiari ezarritako betebehar estatistiko berriei dagokienez, eguneratu egiten da eragile ekonomikoek Biltzaritzate Erakunde Zentralari eman beharreko informazioaren gainez zehapen-erregimena.

Errege lege-dekretuaren erabilerari dagokionez, esan beharra dago Espainia irmotasunez betetzen ari dela zuzentaraueen transposizioa egiteko epeak, baina atzeratu egin dela estatu kideei petrolio gordinaren edo petrolio-produktuen gutxieneko erreserba-maila bat edukitza agintzen dien Kontseiluaren 2009ko irailaren 14ko 2009/119/EE Zuzentaraui dagokionez. Ondorioz, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikuluan adierazitako aparteko eta presazko beharrizan egoera sortu da, eta Espainiako Erresumaren aurkako zigor-prozedura abiatzea saihestu nahi da.

Era berean, aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 108.2 artikulua, eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari gaitasuna ematen zaio esperako gordailutze-eragiketak eta altxordegiko kontuetan funtsak sartzekoak baimentzeko; lehendik, gainera, maileguak emateko eta aktiboak aldi baterako erosteko baimenduta zegoen.

Aldaketa lehenbailehen egin beharra dago, Europako Banku Zentralak berehala hartuko duelako ez ordaintzeko erabakia, eta zigortzekoa ere bai, estatu kideetako sektore publikoko erakundeek beren funtsak eragiketen eguneroko itxieraren ostean banku zentraletan gordailatzeagatik. Saldo horiek sistemaren likideziari kalte egiten dioten faktore autonomoak dira, eta ondorio negatiboak dituzte diru-politikaren ezarpenean.

Egoera hori saihesteko, eta aintzat hartuta erabilgarri dauden bitartekoak ez direla aski banku pribatuekin egindako altxordegiko eragiketetan Altxor Publikoaren funtsak osorik sartzea bermatzeko, beharrezkoa eta premiazkoa da tresna gehiago eskuratzea, Altxor Publikoaren saldo-soberakinak Espainiako Bankuan gordaila ez daitezten eta balizko ordainsari negatiboen arriskua saihesteko.

Gainerako xedapenetan, honako xedapen hau emateko eskumen-tituluak jasotzen dira, eta arau hau indarrean sartzea (argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean).

Horrenbestez, Sustapeneko, Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroaren, Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroaren, eta Energiako eta Turismoko ministroaren proposamenari jarraiki, eta Ministroen Kontseiluak 2013ko abenduaren 13ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikula. *ADIF-Alta Velocidad erakundea sortzea.*

1. 2013ko abenduaren 31n, ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publiko berria sortuko da, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduaren apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 43.1.b) artikulan aurreikusitako organismo publikoen gisara. Horretarako, abiadura handiko trenbide-azpiegituren eraikuntza- eta kudeaketa-jarduerak eta esleitzen zaizkion besteak banandu egingo dira errege lege-dekretu hau indarrean sartu arte Trenbide Azpiegituren Administratzialearen (ADIF) esku egon direnetatik.

Banandu gabeko jarduerak ADIFen esku jarraituko dute.

Jarduera-adarra banantzeak ez du gastu publikoaren hazkunderik ekarriko.

Hala ADIF nola ADIF-Alta Velocidad gainerako trenbide-enpresekiko edo trenbide-azpiegituraren ahalmena lortzeko hautagai direnekiko erabateko independentziarekin jardungo dira beren egitekoetan.

ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoak nortasun juridiko propioa, jarduteko gaitasun osoa eta ondare propia izango ditu, Estatuko Administrazio Orokorrarenaz bestelakoa, eta Sustapen Ministerioari atxikita egongo da.

Ministroen Kontseiluak, errege-dekretuaren bidez, Sustapen Ministerioaren ekimenez eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak proposatuta, ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoaren Estatutua onartuko du. Agiri horretan, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduaren apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 62. artikulan zehaztutako alderdiez gain, haren oinarrizko antolamendugitura, goi zuzendaritza-organoak eta horien funtzoak arautuko dira.

Halaber, Ministroen Kontseiluaren errege-dekretu bidez, Sustapen Ministerioaren ekimenez, eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak proposatuta, aldatu egingo da ADIFen Estatutua onartzen duen urriaren 30eko 2395/2005 Errege Dekretua, bertan xedatutakoa errege lege-dekretu honetan ezarritakora egokitzeo.

2. ADIF-Alta Velocidad erakundeak Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legeak trenbide-azpiegituren administratzialeari esleitutako funtzoak hartuko ditu bere gain, bai eman zaizkion trenbide-azpiegituren titulartasunari dagokionez, bai etorkizunean eman ahal zaizkionen titulartasunari dagokionez. Horrenbestez, xedapen honetan aurreikusi ez den guztian, eta esleitu zaizkion eskumenei dagokienez, Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen II. tituluko V. kapituluan ezarritako aplikatuko zaio, bai eta trenbide-azpiegituren administratzialeari aplikatzearen ondoriozko gainerako manuak ere.

ADIF-Alta Velocidad erakundeak ADIF empresa-erakunde publikoa subrogatuko du artikulu honen 5. paragrafoan aurreikusitako ministro-aginduaren bidez esleitu zaizkion trenbide-azpiegitura guztiak eraikitzeko edo administratzeko esleipen eta mandatuetan, hala nola aipatutako azpiegituren gainean ADIFek hasitako edo sinatutako gastu-txosten eta kontratu guztieta, baldin eta erakunde berria sortu den datan oraindik ere indarrean badaude.

3. Errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera ADIF-Alta Velocidad erakundearen ardurapean geratuko diren jardueretan eta zerbitzuetan ziharduten ADIFeko langileak, aurrerantzean, erakunde berriko langile izango dira. ADIFeko langileak ADIF-Alta Velocidad erakundeak izatera igarotzea Sustapeneko ministroaren agindu bidez gertatuko da, aurrez Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak horren aldeko txostena emanda.

Langileen Estatutuaren 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, 2013ko abenduaren 31n ADIF empresa-erakunde publikoaren eta ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoaren artean empresa-ondorengotza gertatu dela joko da. Aipatutako datara arte ADIFen lan egin zuten langileak ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoaren langile bihurtuko dira, eta lehengo jardueretan eta zerbitzuetan jardungo dira; errege lege-dekretu honetan ezarritakoari jarraiki ADIF-Alta Velocidad erakundeak bere gain hartuko dituen horietan, hain zuzen ere.

Langile horien lan-harremanak empresa berrian sartu diren unean aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboak arautuko ditu.

ADIFen langileen legezko ordezkari gisa zihardutenek, ADIF-Alta Velocidad erakundean integratzean, lehengo baldintza berdineta jarraituko dute ordezkartzela-lanetan.

Langileen integrazioak ez du, inola ere, diru-hornidurak, ordainsariak eta sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen bestelako pertsonal-gastuak handitzea eragingo.

ADIFeko nahiz ADIF-Alta Velocidad erakundeko zuzendaritzako kideen eta presidentearen ordainsari-erregimena, hala nola erakunde bietako Administrazio-kontseiluetara joategatiko ordainak, empresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duen martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan ezarritakora egokituko dira.

4. ADIF empresa-erakunde publikoaren presidenteak eta Administrazio-kontseiluaren idazkariak kargu bera izango dute ADIF-Alta Velocidad erakundean.

5. ADIF-Alta Velocidad erakundeak, bere helburuak betetzeko, ondare propioa izango du, Estatuko Administrazio Orokorrak duenaz bestelakoa; haren titulartasuneko ondasunek, eskubideek eta betebeharrek osatuko dute ondare hori.

Sustapeneko ministroaren eta Ogasuneko eta Herri Administrazioko ministroaren aginduaren bidez zehaztuko da ADIFen edo ADIFi atxikitako zein aktibo eta pasibo izango diren aurrerantzean ADIF-Alta Velocidad erakundearen titulartasunekoak. Aipatutako aktiboak eta pasiboak haien kontabilitate-balioaren arabera integratuko eta erregistratuko dira ADIF-Alta Velocidad erakundearen ondarean.

ADIF-Alta Velocidad erakundearen ondarean sartuko dira aurreko lerrokadan aurreikusitakoa betez haren titulartasunpean jarri diren trenbide-azpiegiturak, ADIF-Alta Velocidad erakundearen finantza-jasangarritasuna bermatzeko egokitzat jotako ADIFen ondasun higikor eta higiezin guztia, eta ADIFek ondasun horien gainean onartutako zorra.

Banantza gertatu ondoren, eta Ministroen Kontseiluaren akordioa dela medio, trenbide-azpiegituren eskualdaketa gertatu ahalko dira ADIFen eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen artean, baldin eta interes orokorreko trenbide-sarea ustiatzeko eta garatzeko arrazoiengatik komenigarria irizten bazaio. Bi erakundeen artean aktiboen transferentzia egiteko, erakunde lagatzailean erregistratutako kontabilitate-balioa aintzatetsi eta erregistratuko da; aipatutako eskualdaketarako baldintzak Ministroen Kontseiluak zehaztuko diru.

6. ADIF-Alta Velocidad erakundeak Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa beteko du trenbide-azpiegituren eraikuntza kontratatzean eta azpiegitura hori administratzean.

7. ADIF-Alta Velocidad erakundeak eta ADIFek, dagokion hitzarmenaren bidez, jarduera jakin batzuk gauzatzeko eskatu ahal izango diote elkarri. Hitzarmen horretan, nahitaez adierazi beharko da zein konpentsazio ekonomiko jasoko duen ADIF empresa-erakunde publikoak edota, hala badagokio, ADIF-Alta Velocidad erakundeak, eskatutako zerbitzuak eskaiztearen kariaz.

Bereziki, bi erakundeek azpiegituren ahalmena kudeatzea eskatu ahal izango diote elkarri; horrez gain, erakundeek administratzeko esleitura dituzten sareen interkonexioa dela eta, eta Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 22.4 artikuluan jasotakoaren salbuespen gisa, kontrol-, zirkulazio- eta segurtasun-sistemak kudeatzea ere eskatu ahal izango diote elkarri.

Bestalde, erakundeetako batek besteari herritarren segurtasunarekin eta babes zibilarekin lotutako lanak egitea eskatuz gero, arlo horretako arduraduna bat bera izango

da bi erakundeetan. Aurrekoa laneko arriskuen prebentzioaren, laneko segurtasunaren eta osasunaren arduradunari ere aplikatuko zaio.

8. ADIF-Alta Velocidad erakundeak eta ADIFek Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 74. eta 75. artikuluetan ezarritako trenbide-kanonen zenbatekoak aldatzeko edo eguneratzeko proposamena egingo dute, aipatutako lege-testuaren 77. artikuluaren arabera.

9. Banantzearen eraginak, kontularitzari dagokionez, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak izango dira. ADIF-Alta Velocidad erakundeak 2013ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan adieraziko ditu urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera banandutako jarduera-adarrari dagozkion aktiboak eta pasiboak, diru-sarrerak, gastuak eta eskudiru-fluxuak. Halaber, ADIFek ez ditu 2013ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan sartuko banandutako jarduera-adarraren aktiboak eta pasiboak, diru-sarrerak, gastuak eta eskudiru-fluxuak; eta balantzean baja emango die banandutako jarduera-adarrari dagozkion aktibo eta pasibo guztiei, eta horren kontabilitate-eragina 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izango da.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren ondorioz, banantzeak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izateko bi enpresa-erakunde publikoek beren kontabilitateetan erregistratu beharreko transakzioek ez dute zergarik sorrazik, erakunde bakoitzaren 2013 ekitaldiko sozietaeten gaineke zergaren zerga-oinarria zehazteko izan ezik.

10. Xedapen honen ondoriozko administrazio-eragineko, -atxikipeneko eta -esleipeneko eta ondare-mutazioko eskualdaketei, egintzei edo eragiketei martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sozietaeten gaineke Zergaren Legearen testu bateginaren VII. tituluko VIII. kapituluan aurreikusitako zerga-araubidea aplikatuko zaie.

Aipatutako eskualdaketa, egintzak edo eragiketak salbuetsita egongo dira fede-emaile publikoen, jabetzaren erregistratzaleen eta merkataritza-erregistratzaleen esku-hartzeagatik muga-zergak edo ordainsariak ordaintzeaz.

ADIF-Alta Velocidad erakundeari aplikatu beharreko araubaidea, ondare-eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineke zergari dagokionez, modalitate guztiak aintzat hartuta, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergaren Legearen testu bateginaren 45.I.A).a) artikuluan aurreikusitakoa izango da.

11. Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako baliabideez gain, ADIF-Alta Velocidad erakundeak eta ADIFek transferentzia arruntak eta Estatuko Aurrekontu Orokorreko zein beste herri-administrazioen aurrekontuetako kapital-ekarpenak jaso ahal izango dituzte beren titulartasuneko trenbide-azpiegiturak kudeatzeko, eraikitzeko, birjartzeko edo hobetzeko.

Erakunde horiek hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte Estatuko Administrazio Orokorrarekin, beren xedeko jarduerak finantzatzeko.

Sustapen Ministerioak ezarriko ditu erakunde bakoitzaren titulartasuneko sareak kudeatzeko gidalerroak; horretarako, helburuak, xedeak eta kostuak adieraziko ditu, bai eta zerbitzuak izan beharreko kalitate-mailak ere.

12. ADIF-Alta Velocidad erakundeak ADIFi eskuordetu ahal izango dizkio Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen V. tituluaren I. kapituluaren II. atalean araututako tren-bidaiaien garraioagatiko segurtasun-zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzea eta biltzea gaitasunak. Aipatutako zerga sorrazikoa da ADIF-Alta Velocidad erakundearen titulartasuneko geltokietako eta gainerako trenbide-barrutietako zaintza-zerbitzuaren eta bidaiaien nahiz ekipajeen sarbide-kontrolaren ondorioz.

13. Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean eta legea garatzeko xedapenetan trenbide-azpiegituren administratzaleari eginiko aipamen guztiak ADIF-Alta Velocidad erakundeari eta ADIFi egiten zaizkiola joko da, euren eskumeneko esparruetan.

2. artikula. *Estatuaren titulartasuneko sarea osatzen zuten ondasunak esleitzea.*

1. Arau honen 1. artikuluaren 5. paragrafoan aipatutako ministro-aginduan ezarritakoaren arabera esleituko zaizkio ADIF-Alta Velocidad erakundeari otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenean ADIFen titulartasunekoak izatera igaro ziren Estatuaren titulartasuneko trenbide-azpiegiturak, hala dagokionean.

2. Xede guztieta rako, trenbide-azpiegiturei eta geltokiei dagokienez aurreko paragrafoan aipatutako titulartasun-eskualdaketa guztiak, ADIFi eta ADIF-Alta Velocidad erakundeari egindakoak, trenbide-azpiegituren administrazio-jarduerari atxikitako ondasunen doako transferentziatzat joko dira. Eskualdaketa horiek Kontularitzako Informazio Sistematik eta Sustapen Ministerioaren erregistroetatik ondorioztatuko balioan baloratuko eta erregistratuko dira, otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikula. *ADIFen eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen lursailen inventarioa.*

1. ADIFek eta ADIF-Alta Velocidad erakundeak beren titulartasuneko lursail guztien inventario bat eduki beharko dute, baloratua eta kontabilitate-erregistroetan integratua, arau honen 1. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako ministro-aginduak xedatzen duen moduan.

2. ADIFek eta ADIF-Alta Velocidad erakundeak eros-prezioaren arabera baloratuko dituzte aurreko paragrafoan aipatutako lursailak. Eros-preziorik ez dagoen kasuetan, kalkulu-metodo desberdinak aplikatuta egindo da prezioaren zenbatespena. Kalkulu horiek erreferentziazko denbora-tarte berean desjabetutako edo erositako antzeko lursailen eros-prezioetan oinarrituko dira, arau honen 1. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako Sustapeneko ministroaren aginduan zehaztutakoa betez.

3. Aurreko 1. paragrafoan aipatutako inventarioetan, otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretua indarrean sartu zenean ADIFen titulartasunekoak izatera igaro ziren Estatuaren titulartasuneko trenbide-azpiegiturak eta geltokiak kokatuta dauden lursailak sartuko dira, hala badagokio.

Aipatutako lursailei 2. paragrafoan aipatutako eros-prezioaren zenbatespena egiteko irizpideak aplikatuko zaizkie, lursail horiek kontularitzako informazio-sisteman nahiz Sustapen Ministerioaren erregistroetan baloratuta ez badaude.

4. Ondasun higiezin horiek eros-prezioagatik edo, halakorik ezean, aurreko lerrokadan aipatutakoaren araberako balio aplikagarriagatik bi erakundeen kontularitzaregistroetara gehitzea, gehitze hori zein kontabilitate-ekitalditan egiten den kontuan hartu gabe, aktiboen doako transferentziatzat joko da.

Lehen xedapen gehigarria. *ADIF-Alta Velocidad erakundearen finantza-jasangarritasuna.*

1. ADIF-Alta Velocidad erakundeak, finantza-jasangarritasunaren printzipioa betez, bermatuko du Estatuko kontabilitatearen legedi arautzailean zehaztutakoaren araberako produkzio-kostuen eta salmentagatiko diru-sarreren arteko estaldura-ratioak sozietate ez-finantzarioen sektoreko unitate publiko gisa sailkatzea ahalbidetuko duela.

2. Inbertsioen aurrekontuak eta gauzatzeak egokiak izango dira epearen eta zenbatekoaren aldetik; ezin izango da, inola ere, ADIF-Alta Velocidad erakundearen sozietate ez-finantzario izaera (Estatutako kontabilitatearen xedeetarako) arriskuan jar dezakeen inbertsiorik egin.

3. Erakundearen Ustiapeneko eta Kapitaleko Aurrekontuak gauzatzean, ADIF-Alta Velocidad erakundearen sozietate ez-finantzario izaerari eusteko arriskutsua izan daitekeen ratio-jaitsiera eragin dezakeen desbideratzerik egonez gero, indarreko inbertsioak birprogramatu egin beharko dira, harik eta ratioa arrisku-mailatik kanpo geratzen den arte.

4. Gastuei eragin diezaieketen kontratuak, lankidetza-hitzarmenek eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen beste zeinahi jarduerek ratioan izango duten eragina aintzatetsi

beharko da, eta erreferentziazko gutxieneko balioa zorrozki beteta gauzatu beharko dira, Estatuko kontabilitatearen xedeetarako, soziitate ez-finantzario izaten jarraitzen.

5. Horretarako, hiru hilean behin, magnitude horien bilakaerari, uneko ratioari, eta bilakaeraren gaineko aurreikuspenari buruzko informazioa emango dio Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak, igorri zaion informazioa ikusita, bete beharreko estaldura-ratioari eragiten dion arriskurik hautemanet gero, jakinaren gainean jarriko du ADIF-Alta Velocidad, dagozkion neurriak har ditzan, eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeari egoera jakinaraziko dio.

6. Aurrez esandakoaz gain, ADIF-Alta Velocidad erakundeak nahitaez eman beharko dio Estatuko Administrazioko Esku Hartzaitza Nagusiari aipatutako Zuzendaritza Zentroak eskatutako informazio guztia, gastuen estaldura-ratioak betetzen diren egiazatzeko eta, dagozkion baldintzen arabera, Europako Batzordea informatzeko.

7. Oraingo edo etorkizuneko diru-sarrerei eragin diezaieketen ekintzak kostuak estaltzera zuzendu beharko dira, jasangarritasun-printzipioa betez.»

Bigarren xedapen gehigarria. *ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoak obligazioak eta zorraren ordezko balore-tituluak jaulkitzea.*

ADIF-Alta Velocidad erakundeak jaulkitako obligazioek uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Soziestateei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoa bete beharko dute. Hala ere, jaulkipen horiek esklusiboki inbertitzale instituzionalei edo profesionalei bideratutakoak badira, eta atzerriko legeen pean egindakoak badira, aipatutako legedian zehaztutako baldintzak soilik bete beharko dituzte.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Trenbide-sistema energia elektrikoz hornitzea.*

1. ADIF eta ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoak izango dira ondare gisa esleituta dituzten energia elektrikoaren hornikuntzarako puntuen titular, eta erakunde bakoitza izango da dagozkion amortizazio- eta mantentze-kostuen arduradun, bai eta titulartasunarekin lotuta erregelamenduz ezarritako betebeharrena ere.

2. Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 40.3.a) artikuluan ezarritako aplikatuko zaio ADIF-Alta Velocidad erakundeari; hau da, trenbide-azpiegituren administratzialeak interes orokorreko trenbide-sarean integratutako trenbide-azpiegiturak energia elektrikoz hornitzeko zerbitzu osagarria eskaini beharko die horixe eskatzen duten trenbide-enpresei, eta, halaber, ADIFen titulartasuneko azpiegiturak energia elektrikoz hornitu ahalko ditu; eta, horretarako, elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sarerako sarbide-kontratuak sinatu ahal izango ditu ADIFen beraren izenean, banatzaileekin zuzenean edo enpresa merkaturatzaleen bidez, eta, era berean, interes orokorreko trenbide-sareko hornidura-puntu guztiatarako energia-kontratuak sinatu ahal izango ditu enpresa merkaturatzaleekin.

Lehen xedapen iragankorra. *ADIFen eta ADIF-Alta Velocidad erakundearen segurtasun-baimenak.*

2013ko abenduaren 31n ADIF eta ADIF-Alta Velocidad empresa-erakunde publikoak dagokien segurtasun-baimenaren jabe direla joko da; horrenbestez, aipatutako datatik aurrera, erakunde biek trenbide-zirkulazioaren segurtasunari dagozkion indarreko araudian zehaztutako betebehar guztiak bete beharko dituzte. Hala eta guztiz ere, aipatutako datatik hasita sei hilabeteko epean, egoki diren eskabidea eta agiriak aurkeztu beharko dituzte Trenbideen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, dagokien segurtasun-baimena eman diezainen, hala badagokie; hori guztia, ekainaren 22ko 810/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako interes orokorreko trenbide-sareko zirkulazio-segurtasunaren Erregelamenduko 9. eta 14. artikuluen artean adierazitakoari jarraiki, biak barne.

Bigarren xedapen iragankorra. *ADIF-Alta Velocidad erakundearen sareari buruzko lehen adierazpena.*

1. Xedapen hau indarrean sartzen denetik gehienez sei hilabeteko epean argitaratuko da ADIF-Alta Velocidad erakundearen sarearen gaineko lehen adierazpena onartzeko akordioa Estatuko Aldizkari Ofizialean. Kasu horretan, ez da beteko trenbide-azpiegituraren ahalmena esleitzeko prozedurari eta sareari buruzko adierazpenaren apirilaren 7ko FOM/897/2005 Aginduaren 5.1 artikuluan ezarritako epea.

ADIF-Alta Velocidad erakundearen sareari buruzko lehen adierazpena argitaratu bitartean, ADIFek onartutako eta indarrean dagoen adierazpena aplikatuko zaio erakundeari, errege lege-dekreto honen 1.5 artikuluan aipatutako aginduak erakunde berriari esleitutako trenbide-azpiegiturei dagokienez.

2. ADIF-Alta Velocidad erakundeak administratuko duen trenbide-sareari dagokionez, xedapen hau indarrean sartzen denetik lehen zerbitzu-ordutegia indarrean sartzen den arte, trenbide-enpresek erakunde berria sortzean eskaintzen ari ziren trenbide-garraioko zerbitzuak emateko beharrezkoa den azpiegitura-ahalmena izango dute, eta, gainera, zerbitzu berriak eskaintzeko ahalmena eskatu ahalko dute, trenbide-azpiegituren gaitasuna esleitzeko prozeduraren eta sarearen gaineko adierazpenari buruzko apirilaren 7ko FOM/897/2005 Aginduan ezarritako prozedurari jarraiki.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea. Honela egongo da idatzita:

Bat. 50, 51 eta 52. artikuluak honela geratuko dira idatzita:

«50. artikula. *Gutxieneko segurtasun-izakinak.*

1. Estatuan petrolio-produktuen handizkako banaketa egiteko baimena duten operadore guztiek eta lege honek araututako operadoreei erosi ez zaizkien petrolio-erregaien eta motor-erregaien txikizkako banaketa-jarduerak gauzatzen dituzten enpresek Gobernuak erregelamendu bidez zehaztutako produktuen gutxieneko segurtasun-izakinak eduki beharko dituzte beti, kopuruari, produktu motari, biltegiratze-lekuari eta kokapen geografikoari dagokienez; gehienez ere, urteko salmenten ehun eta hogeい egunez eduki beharko dituzte, ezarriko den metodologiaren arabera kalkulatuta. Gobernuak berrikusi egin ahal izango du gehieneko kopuru hori, Spainiako Erresumaren nazioarteko konpromisoek hala eskatzen dutenean.

Erregaien eta motor-erregaien kontsumitzaleek ere, lege honek araututako operadoreek hornitzen ez dituzten zatian, gutxieneko segurtasun-izakinak eduki beharko dituzte, erregelamendu bidez zehaztutako kopuruan, beren urteko kontsumoaren arabera.

Lehen aipatutako gutxieneko segurtasun-izakinei larrialdietarako erreserba iritziko zaie, eta Spainiak nazioarteko konpromisoak, petrolioaren merkatuaren hornikuntza segurtatzeari buruzkoak, betetzea bermatzeko xedea dute.

Halaber, petrolio-erreserben kategoriak erregelamendu bidez zehaztuko dira, merkataritzako erreserbak barne, eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak erreserba espezifikoak ezarri ahal izango ditu, hornikuntza-segurtasuna bermatzeko.

2. Petrolioaren gas likidotuen kasuan, produktuaren handizkako operadoreek, hala nola produktu hori operadore edo merkaturaztale baimenduei erosten ez dieten merkaturaztale edo kontsumitzaleek, gutxieneko segurtasun-izakinak eduki beharko dituzte. Gutxieneko kopurua beren urteko salmenten edo kontsumoen gehienez hogeita hamar eguni dagokiona izango da.

3. Gutxieneko segurtasun-izakinak hilero zenbatu beharko dira, Estatuan kokututako eta aurreko paragrafoetan aipatutako operadoreek eta enpresek biltegiratutako izakin guztiak kontuan hartuta. Izakin horiek erabilgarri eta fisikoki eskuragarri egon beharko dira, Estatuko merkatuaren hornikuntza segurtatzeko, eta edozein unetan egiaztatu ahalko ditu erakunde eskudunak edo 52. artikuluan aipatutako Biltegiratze Erakunde Zentralak.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira gutxieneko segurtasun-izakinak etengabe bermatzeko administrazio-prozedura eta betebeharra, izakin horiek bi kopuru hauetako handiena hainbeste izan daitezen: eguneko batez besteko importazio garbien laurogeita hamar eguni dagokiena edota erreferentziazko urteko batez besteko eguneko barne-kontsumoaren hirurogeita bat eguni dagokiena, petrolio baliokidean.

Halaber, informazioa igortzeko betebeharra ezarri ahalko zaie gutxieneko segurtasun-izakinak edukitzera derrigortuta ez dauden erakundeei, baldin eta Espainiako lurraldean petrolio findugabea eta/edo petrolio-produktuak sartzen baditzute.

5. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak izango du gutxieneko segurtasun-izakinak edukitzeko betebeharra betetzen den ikuskatzeko ardura, behartuta dagoen subjektua handizkako operadorea bada; behartuta daudenak txikizkako banatzaileak edo kontsumitzaileak direnean, Administrazio autonomikoek izango dute ardura hori.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zein prozeduraren bidez emango dioten informazioa elkarri ikuskaritza egiteko eskumena duen Administrazio publiko eskudunak eta 52. artikuluan aipatutako Petrolio Produktuen Erreserba Estrategiko Korporazioak.

51. artikula. Gutxieneko segurtasun-izakinak edukitzeko betebeharra duten subjektuak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko da zein prozedurari heldu behar zaion subjektu guztiak urte bakoitzeko maiatzaren 31 baino lehen ezagutu ditzaten hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera biltegiratze-betebeharra kalkulatzeko aplikatuko diren modalitateak.

Halaber, behartuta dauden subjektuek eduki beharreko erreserben kopuruak ezarriko dira. Korporazioak gorde beharko ditu horiek nahitaez, baita, nahitaezko ehunekoez gain, gorde nahi dituen guztiak ere. Ezarritako nahitaezko kopuruaz gaindiko erreserbak gordetzeko eskubidea gauzatu nahi badute operadoreek, aurreko urteko ekainaren 30a baino lehen jakinarazi beharko dute beren asmoa.

Petrolio-produktuen gutxieneko segurtasun-izakinak edukitzeko betebeharra duten subjektuek erregelamenduz ezarritako moduan laga edo alokatu beharko dituzte beren izakinak, eta Korporazioari beren instalazioak eskaini.

Erreserbak eroskeko, saltzeko, alokatzeko eta biltegiratzeko eragiketak kontratu estandarren arabera egingo dira. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak onartuko ditu eredu horiek.

2. Behartuta dauden subjektuek erregelamenduz zehaztutako moduan bete ahal izango dituzte erreserbak Espainiako Erresumaren alde gordetzeko betebeharra, beren jabetzako izakinen bidez, edo biltegiratze-erakunde zentralekin zein Espainiako mugetatik kanpo biltegiratzeko ahalmena duten Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako operadore ekonomikoekin sinatutako alokairu-kontratuak direla medio eskuragarri dauden izakinen bidez; betiere, hirugarrenei inola ere laga edo alokatu ez bazaizkie, eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren baimena jaso badute. Era berean, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako zein gainontzeko estatuetako subjektuek Espainian gutxieneko segurtasun-izakinak nola eta zer baldintzatan eratu behar dituzten zehaztuko da.

Halaber, beren jabetzako izakinen bidez bete ahalko dituzte betebehar horiek, edo behartuta dauden beste subjektu batzuekin edo Spainian biltegiratzeko ahalmena duten operadoreekin sinatutako alokairu-kontratuak direla medio eskuragarri dituzten izakinen bidez; betiere, hirugarrenei inola ere laga edo alokatu ez bazaizkie, eta aurrez Korporazioari jakinarazita.

3. Edonola ere, bermatuta egon beharko da larrialditarako erreserben eta beste estatu kide baten kontura Spainian biltegiratutako berariazko erreserben erabilgarritasuna. Halaber, hornidurak eten larriren bat jasango balu, lege honen 49. artikuluaren kariaz Espainiako Erresumak har ditzakeen neurriek ez dute eragotzikio larrialditarako erreserben eta beste estatu kide baten kontura biltegiratutako berariazko erreserben transferentzia, erabilera edo banaketa.

52. artikulua. *Biltegiratze Erakunde Zentrala.*

1. Petrolio Produktuen Erreserba Estrategikoen Korporazioaren xedea, Biltegiratze Erakunde Zentrala den aldetik, erregelamenduz zehaztutako hidrokarburo-erreserbak erostea, eratzea, mantentzea eta kudeatzea izango da.

2. Halaber, irabazi-asmorik gabeko zuzenbide publikoko korporazioa denez, interes orokorraren alde jardungo du, nortasun juridiko propioarekin, zuzenbide pribatuko araubidean. Lege honetan eta garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera jardungo du. Korporazioa, bere jarduerak gauzatzean, Estatuko Administrazio Orokorraren babespean arituko da; Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren bidez jasoko du babes hori.

3. Lehenengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, Korporazioak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Lege honetan eta garatzeko xedapenetan zehaztutako erreserbak, merkataritza-erreserbak barne, identifikatzea, egiaztatzea, kontabilizatzea eta kontrolatzea; halaber, behartuta dauden subjektuek eta operadore ekonomikoek biltegiratutako erreserbak zein mailatan dauden adierazi beharko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, gutxienez hilean behin.

b) Larrialditarako erreserba biltegiratu guztien inventario xehe eta iraunkorra ezartzear; hala badagokio, berariazko erreserbak salbuetsita. Inventario horrek alderdi hauek jasoko ditu, bereziki: aipatutako erreserbak biltegiratuta dauden gordailua, findegia edo instalazioaren helbidea, hala nola kopuruak, jabea eta izaera, Europar Batasuneko Zuzenbideko arauetan zehaztuta dauden eta une horretan aplikatu behar diren kategorien arabera. Datu horiek bost urtez gorde beharko dira.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak edozein unetan eskatu ahal izango dio inventario hori Korporazioari, eta gehienez hamar eguneko epea izango du igortzeko.

Urte bakotzeko urtarilaren 31 baino lehen, inventario horren bertsio laburtua bidali beharko zaio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, aurreko urte naturalaren azken eguneko inventarioan sartutako larrialditarako erreserben kopuruak eta izaera adieraziz.

c) Modu etengabean argitaratu behar da Korporazioak behartuta dauden subjektuei, bestelako operadore ekonomikoei edo beste biltegiratze-erakunde zentralei bermatu ahalko dizkien erreserba-bolumenei buruzko informazio osoa, produktu-kategoriatan sailkatua. Halaber, urte bakotzeko maiatzaren 31 baino lehen argitaratuko du behartuta dauden subjektuen konturako erreserben biltegiratze-zerbitzuak zein baldintzatan eskainiko dituen.

d) Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren aginduz, hala badagokio, ezar daitezkeen berariazko erreserbak modu esklusiboan erostea edo saltzea.

e) Operadore ekonomikoen edo behartuta dauden subjektuen erreserbak erregelamenduz ezarritako baldintzetan eratzea, mantentzea eta kudeatzea.

Alokairu-kontratuak direla medio eskuragarri dituen erreserbak ezin izango dizkie hirugarrenei inola ere laga edo alokatu.

f) Espainiako Erresumak etengabe biltegiratuta dauzkan petrolio baliokidearen erreserba guztia eta produktu-kopuruak kalkulatzea eta egiaztatzea, eguneko batez besteko importazio garbien eta erreferentziazko urteari dagokion eguneko batez besteko barne-kontsumoko egunen bidez kalkulatuta, Europako legediaren eta Espainiako Erresumak hartutako nazioarteko itunetatik eratorritako betebeharren arabera.

Halaber, Industria, Energia eta Turismo Ministerioari igorri beharko dizkio erregelamenduz ezarritako hidrokarburoen gaineko harreman estatistikoak.

g) Industria, Energia eta Turismo Ministerioari hidrokarburoen merkatuaren hornidura-segurtasunaren betebeharrek ezartzera eta eguneratzera bideratutako jarduerak eta neurriak proposatzea, Espainiako Erresumak hartutako nazioarteko konpromisoak betez.

h) Herri-administrazioekin elkarlanean jardutea, informazioa eta aholkuak emateko, eta hidrokarburoen sektoreko bere eskumeneko alderdiei loturiko edozer jarduera gauzatzeko; bereziki, Espainiaren prestakuntza-maila eta larrialdiatarako erreserben biltegiratzea ikuskatzeari dagokionez.

i) Industria, Energia eta Turismo Ministerioak hidrokarburoen sektoreko hornidura-segurtasunari buruz enkargatutako eginkizunak.

4. Korporazioak, hala dagokionean, zehapen-espedienteak abiaraztea proposatu beharko dio agintaritza eskudunari, eta, beharrezkoa den kasuetan, Estatuaren Administrazio Orokorrari horren berri eman beharko dio. Helburu horietarako, behar den informazioa bilduko du eta beharrezko ikuskaritzak egingo ditu, behartuta dauden subjektuek betebeharrek betetzen dituzten kontrolatzeko.

5. Korporazioa sozietaeten gaineko zergatik salbuetsita egongo da, kideek egindako finantza-ekarpenen ondoriozko errentari dagokionez.

Kideen ekarpenak, Korporazioaren erreserba-hornidura areagotzen duten heinean, ez dira zerga-kenkaritzat hartuko sozietaeten gaineko zergaren zerga-oinarriak zehazteko garaian. Ekarpen horiek Korporazioaren kideei dagozkien ondarearen hazkundeak edo murrizketak zehazteko zenbatetsiko dira. Baja ematen dutenerako balioko dute, baita beharrezko izakinaren kopurua aldatzan denerako ere, kasuan-kasuko araudiaren arabera.

Aurreko lerrokadan aipatutako eragiketen ondoriozko errentek ez dute dibidendumen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria egiteko eskubiderik emango Korporazioaren sozietaeten gaineko zergaren zerga-oinarrian sartu gabeko errentei dagokien zatian.

